

Euskal Eliza Herritarra

Paulo Agirrebaltzategi

Duela ia 30 urte zabaldu zen 'Kristau elkarte herritarrak' (edo herrikoiak) kontzeptua Euskal Herriko oinarriko kristau elkarteetan. 1979-80 urteetan gogoeta eta eztabaida luzea bideratu zuten beren izaerari buruz, eta 1980ko urrian ospatzekoa zuten batzarrerako agiri nagusia landu zuten. – Herria-2000-Eliza aldizkari honen 27. zenbakian (17-18 or.) ikus daiteke batzarrerako landuriko dokumentua: "Comunidades cristianas populares de Euskal Herria. Nuestra identidad". IV. batzarrean eztabaidatu eta onartu zuten. –Batzarre horren inguruko kronika gisakoa aldizkari beronen 28. zenbakian ikus daiteke, Jose María Rodríguez Erdozainek idatzia–.

'Oinarriko elkarteak' izenaren ordez 'elkar-te herritarrak' izena erabiltzeak ez zuen esanahi apartekorik, Felix Placer-ek bere liburu mardul eta mamitsuan dioenez: *Creer en Euskal Herria. La experiencia creyente de las Comunidades Cristianas Populares y de la Coordinadora de Sacerdotes de Euskal Herria. 1976-1996* (66-67 or., 95. oharrean); oinarriko komunitateek lehendik bilatzen zuten Eliza herritarraren eredua eta helburua hobeto agertu eta nabarmentzeko aldatu zuten izena.

ELIZA HERRITARRA: ELIZTARREN ELIZA

Kristau elkarte herritar bateko lagun batek 'Eliza handia' hitza –ez oso teologikoa– erabili ohi du, urruneko zerbait bezala eta oinarriko elizaren edo eliza herritarraren kontraposizioz edo. Zer da eta zein da Eliza handi hori? Seguruenik ez da mundu zabaleko Eliza unibertsalaz ari gure laguna, ondotxo baitaki berak edozein kristau elkarte Eliza unibertsal horren parte dela; eta Amerikako, Afrikako eta Asiako hainbat kristau elkarte herritarrekin kidetasunean eta hurbiltasunean bizi du berak seguruenik bere kristau fedearen esperientzia; eta hurbil-hurbileko sentitzen ditu gainera antzina hartako hasierako Elizako kristau komunitate haiek ere. Seguruenik beste zerbait adierazi nahi du urruneko gertatzen zaion "Eliza handia" esatean; beharbada Vatikanoren, kardinalen eta apezpikuen Eliza hierarkikoa –goi-hierarkiaren Eliza– gertatzen zaio urruneko; agian urrunekoagoa gertatzen zaio 'Eliza handi' hori, handien eta handikien hurbileko-tzat hartzen duelako, munduko boteredunekin aliatutzat sarritan.

Zer da Eliza herritarra, beraz? 'Eliza handi' horren bestelako aukera –alternatiba– ote da Eliza he-



Paulo Agirrebaltzategi.

rritarra? Euskal Herriko kristau elkarte herritarren aipaturiko oinarriko agiri hartan (1980) kontzeptu guztiz teologikoa da aurrenik 'Eliza herritarra'. Izan ere, Vatikanoko II. Kontzilioak 'Jainkoaren Herri' definitu zuen bereziki Jesus Jaunaren jarraitzaileen komunitatea. Herria, berriz, herritarrek osatzen dute funtsean; eta Eliza eliztarrek osatzen dute funtsean. Horra, Eliza herritarra = Eliztarren eliza... Eta ez elizgizonen eliza.

Badu, ordea, 'Eliza herritarra' kontzeptuak beste adierarik, itxuraz soziologiari dagokiona, baina funtsean guztiz teologikoa dena: kristologikoa eta eklesiologikoa, aldi berean, zuzen-zuzenean Ebanjelioari dariona eta Jesus Jaunak aldarrikaturiko Jainkoaren Erreinuaren ildotik doana. Herritar xumeekin –herritar soilekin–, eta horien artean bereziki pobre, baztertu, zapaldu eta minorizatuekin identifikatu zen Jesus, eta horiei eskaini zien aurrenik Jainkoaren Erreinuaren berri ona.

Jesusen Ebanjelioarekin leial eta mundu eta gizarte honetan Jainkoaren Erreinuaren sakramentu izan nahi duen Elizak, Hark lehentasunez maitatu eta aukeratu zituen horien komunitatea izan behar du funtsean –inolako botererik gabeko herritarrena, eta bereziki pobre, zapaldu, baztertu eta mino-

rizatuena–; eta horrelakoen askapen integralaren zerbitzura egon behar du.

Horrela ulertu zuten Euskal Herriko kristau elkarte herritarrek ‘Euskal Eliza Herritarra’, eta horri begira jarri ziren duela 30 urte beren identitatea definitzean: “Klase eta sektore herritarrekin bat eginik eta Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko prozesuaren barruan sartuta sentitzen dugu geure burua”.

EUSKAL ELIZA HERRITARRA ETA PARTIKULARRA

“Ba al du gaur egun zentzurik *Euskal Eliza Herritarraz* mintzatzeak”? galdetu didate, artikulu honetarako gaia ipini didatenek. Zalantzarik gabe, azken hogeitamar urteotan Euskal Herriaren egoera soziala aldatu egin da askotxo; aldatuta dago, baita ere, orduko testuinguru politikoa, gure Herrikoa, estatukoa eta nazioartekoa. Aldatu –eta apaldu– egin da kristau elkarte herritarren garai hartako dinamismoa, eta Euskal Eliza Herritarren ametsa eta helburua ere motz geratu dira seguruenik –batek baino gehiagok huts egin dutela esango du, agian etsipenez, edota orain 30 urte baino urrunago daudela–.

Aldaketa politikoa, sozial, eklesial eta bestelako guztien gaineratik –edo azpitik–, ordea, duela 30 urteko parametro funtsezkoek hortxe diraude kristau elkarte herritarrentzat: a) Ebanjelioaren askapen mezua eta eskaintza sektore eta klase herritarrentzat; eta kristauarentzako eskakizuna dinamika horretan sartzeko; b) Euskal Herriak eta bereziki bertako klase eta sektore herritarrek eta baztertuenean jasaten duten ukapen, zapalkuntza eta minorizazio egoera larria; c) Hemengo Elizaren eginkizuna, horien duintasun dinamikan sartu eta Ebanjelioaren askapen osoaren mezua horiei eskaintzeko, Euskal Eliza Herritar bihurtuz

Azken arazo honi buruz, esan beharra dago Euskal Elizarik ez dagoela, egon, gaur egun. Duela aste batzuk entzun ahal izan genuen eztabaida bat ETBn, “Euskal Eliza des-abertzaletzeko” azken aldiko ahaleginei buruz: Espainiako Eliz hierarkiaren sektoreen batzuetatik edota Erromatik omen datozenei buruz, alegia. Alde bateko eta besteko solaskideek ontzat ematen zuten nonbait ‘Euskal Elizaz’ hitz egitea, besterik gabe. Baina non dago, egon, Euskal Eliza hori? Gehienik ere bost elizbarruti daude Euskal Herrian, beren artean inolako lotura instituzional eraginkorrik ez dutenak eta beren pastoraltzan ia batere harreman praktikorik gabe dihardutenak. Orain dela 30 urte haietan behin baino gehiagotan ipini zuten Euskal Herriko hainbat apaiz eta eliztarrek euskal eliz probintzia eratzeko eskabidea; orduan sorturiko itxaropen apurrak askoz urrunago dirudi orain. Garai batean landuriko Hego Euskal Herriko apezpikuen arteko

ekimen pastoral apurrak ere baztertua edo daude nonbait. Alde horretatik behintzat ezin gaitzke mintza ‘euskal elizaz’. Bide horretatik Euskal Herriko Apaizen Koordinakundeak eta kristau elkarte herritarrek irekitako bidea eta egindako ahaleginak ere oso labur –batzutan hutsean– geratu dira. Azkenik, eta eliz hierarkiari begiraturaz, non dago ‘Euskal Eliza’, bertako sei apezpikuetatik, lauk euskaraz ez dakitenen? –Euskaraz nolabait irakurtzen badakiela esatea, lotsagarria da euskal eliztarren artean bere ministerioa duintasunez bete nahi duen apezpikuarentzat–.

‘Herria’ eta ‘herritar’ hitzen adiera soziologikoa eta adiera antropologikoa, biak hartu behar ditugu kontuan hemen. Batetik, euskal gizarteko “klase eta sektore herritarrek” adierazi nahi ditugu, bereziki baztertuena eta ukatuenak beren duintasunean eta eskubideetan; bestetik, Euskal Herria bera, komunitate historiko, kultural eta etnikoa, adierazi nahi dugu: ukatua, zatitua eta minorizatu bi estatuen aldetik.

“Jainkoaren Herria Euskal Herrian” izanik, Euskal Herriko Eliza: a) klase eta sektore herritarrekin bat egiten duen eta horien zerbitzuko dagoen *Euskal Eliza Herritarra* izatera deitua dago: horien eskubideen defendatzaile eta horien askapen osoaren eragile izango dena, eta bere barne antolakuntzan eliztar guztien eskubideak bermatzearekin batera, komunitateko harremanetan elkarrizketa eta erantzunkidetzat sustatuko dituen; b) Euskal Herriaren Herri-izaera –historian, kulturen eta hizkuntzan oinarritua–, onartu eta bereganaturik, horretan txertaturiko Euskal Eliza Partikularra izatera deitua dago: horri ezarritako minorizazioaren aurka, berorren duintasuna eta promozioa bilatuz, eta berorren identitatea eta nortasuna bermatuz eta sendotuz.

‘Eliza partikularra’ ez da kontzeptu administratiboa soilik, eta bai eklesiologikoa eta pastoral ere funtsean: hau da, Ebanjelioaren inkulturazio legearen arabera, Herri bakoitzaren kulturen txertatu eta gorpuzturiko komunitate kultural-eklesiala da –sarritan ‘eliza lokal’ edo diozesi batek baino gehiagok osatua–. Mundu zabaleko Herri eta kulturen aniztasunaren barnean Eliza bakarraren ugaritasun eta aberastasun antropologikoaren –eta teologikoaren– agergerria da eliza partikularra.

AURRERA BEGIRA, GOGOETA BERRITUA

Felix Placerrek 1996rainoko gogoeta eta esperientzia azaldu zituen goian aipaturiko bere liburuan. Ordutik hona beste 12 urte pasa dira. Euskal Herriaren, gizartean eta Elizaren egoera eta dinamikaren analisia eguneratu beharra dute zalantzarik gabe, gaurko kristau elkarte herritarrek, Euskal Eliza Herritarri begira. Era berean, hogeitamar urteko



esperientziak, kristau elkarte herritarren bilakae-raren azterketa kritikoa eskatzen du seguruenik, aurrera begira horien gizarteko eta Eliza barruko lekua eta jardunbidea egokitzeko, horien elkarte biziera eta bizitasuna areagotzeko, Euskal Eliza Herritarraren helburuari begirako horien ahalbi-deak eta ahaleginak bideratzeko.

Felixek berak hainbat aztergai ipini zituen bere liburuaren azkenean (658. or.), kristau elkarte herritarrek eta Apaizen Koordinakundeak artean gehiago sakondu eta landu beharrekotzat; beraren baimenaz, hona ekarriko ditut, gaurkotasan bete-betea dutelakoan:

- *Significado del evangelio en los procesos liberadores y pacificadores de Euskal Herria*
- *pluralismo en opciones y praxis eclesiales*
- *diálogo y colaboración desde posiciones diferentes en la Iglesia*
- *aportación eficaz de la Iglesia a la construcción de una paz integral en Euskal Herria*
- *implicaciones de una inculturación de la iglesia vasca, sobre todo en lo referente a la normalización lingüística*
- *el testimonio práctico de la opción por los pobres*
- *el establecimiento unitario, jurídico y pastoral, de una Iglesia vasca en el conjunto de Euskal Herria*
- *una teología y reflexión creyente pensadas y elaboradas desde la memoria histórica y la realidad sociocultural de Euskal Herria.*

Neure aldetik, eta azken urteotan Euskal Herrian, gure inguruan eta munduan gertaturiko aldaketak kontuan izanik, beste zenbait aztergai ere mahai gainera ekartzera ausartuko naiz. Hona:

- a) Etorkinen arazoak eta horien eragina eta ekarpena gure gizartean; horiek gure Herriari eta Elizari eskaintzen dizkioten aukera berriak.
- b) Neoliberalismo ekonomiko mundialaren ondorioz, herri aberatsen eta herri pobreen arteko alde gero eta handiagoa: Euskal Herriatik kristau fededunok horri eman beharreko erantzuna.
- c) Politika ekonomiko neoliberalen ondorioak lan-baldintzetan eta sektore sozial ahulenetan: Horren aurrean Ebanjelioak ipintzen dituen galderak eta erantzukizuna.
- d) Globalizazioaren erronkak Herriarentzat eta Elizarentzat: Erljioen, Elizen eta kulturen arteko elkarrizketa eta harremanak Euskal Herrian bertan
- e) Teknologia berriek eta Internetek eskaintzen dituzten baliabideen erabilera ebanjelizazioan –KEH-k “ebanjelizatzailetzat” definitu zuten beren burua 1980ko agiri hartan–.
- f) Espainiako Eliz hierarkikoaren zenbait sektore Euskal Herriari buruz jokatzeko ari den joko “erasokorraren” aurrean, Euskal Herriko elkarte herritarrek –Espainiakoekin batera?– hartu beharreko ekimenak.

Otras materias a profundizar que propongo:

1. El problema de los inmigrantes y consecuencia.
2. El abismo que va creciendo entre pueblos ricos y pobres.
3. Las consecuencias del neo-liberalismo en las capas sociales menos favorecidas.
4. Los nuevos retos de la globalización.
5. Las nuevas tecnologías e Internet.
6. Postura de la Iglesia oficial.